



**Efoma-Batlikano'tik.**

Gariña-24'n izenbetu eban Aita Santua'ren idazkariak, Pacelli kardenalak, eta Yugoslabiako Zuzentza-ministroak, berein-beregi etofita, Itunben edo Konkordatoa.

Ez da egun bateko lana izan. 1921'n asi ziran gai onetzazko autuak Yugoslabiagaz. Yugoslabiak Eleizaren eskubideak aintzat artzen ditu. Eleiz liturji izkuntza antxiñako salabera erabili al izango da, katoliko-ekontzak latefi legeak aintzat artzen ditu, Kistar-ikabidea ikastoletan irakatsiko da, eta Eleizaren ondasunak itzal izanez gañera, Katoliko Eleizari beste zineskerari emoten yaken laguntza emongo yake Eleizak bere aldetik Katoliko-Ekintzaz lan egingo dau, eta bideak artuko ditu. Eleiz-arazoetan lan egiten daben abadeai, alderdietan sartzea galarazteko. Eleizak, ikusten danez, gero ta itzal andiagoa latefietan, eta bere eskubideak aintzat artzen dituela pozez, ikusi bear dogu. Emen be ba dogu ofen beafizana!...

**Gudari zafen bidexkunda.**

Datofen irailan dauke asmaoa, latefi gustietako gudari zafak, Efoma'ra bidexkunda bat egiteko, igaz Lourdes'era egin eban antzera. Ila onen 6'tik 9'ra 15.000 bidezti elduko dira. Amasei latefiakoz izena emon dabe. Aita Santua laster Castel-Gandolfo'ra udaldia igaroten yoango da-ta, andik Batikano'ra aldatuko da. Batikano'ko eleiz-zan yaupa gudari zafen aufean emon eta eurai itzaldi bat egiteko. Bideztiok, eguerdi ostean, Colosseo'an Ordu Deuna egingo dabe.

**Ikertzeak.**

Aita Santua ikertu dabe, beste batzuen artean, 200 gaste «Giovane Patria» bazkunakoak. Austria'tar Bazkunakoak. Aita Santua'k itzalditxo bat egin dautse alemaneraz, euren asmaoa txalotuz, osterari erin dabelako gaste lagunei ikasbiderik edefena emonaz. Ufengo egunean Dollfus, latefi gizon bikañaren eriotzako urteufenean Batikano'ko pafokian egin ziran il-otoitzetara yoan ziran. Andikiro eleizkizuna egin zan, latefi ordelariez gañera, eleiz-gizon eta lekaide ordelari gizoste izugafiaz batera eldu ziran. Latefi-gizon ospetsu onen gomutaz egin diran eleizkizunak, Austria'n batez be, andikiro ospatu dira, eta egiz agertu dabe bere aberkideak benetan maite izan ebela, bere abefia gaizkatzeafan bizia galdu eban, gorputzez ain txikia izan afen gogoz eta eragipenez gitxi lakoa izan zan gizon aundi au.

**Eleiza ta Hileritafak.**

Egunokaz, Alemania'ko agintariak gastedi katolikotari bazkunako soñeko ta ezaugafiak debekau egin dautsez. Langile katolikotafei be bakean ez dautse itxi gura, agirian euren alde yafi daitezala eskatuaz.

Munich'en egiteko euken «Erlejiño Astea» ke debekau egin dabe.

Katolikoak, baña, ez dira bildurtzen kitlertafen zemakuntzaz gora-bera. Berlin'en Aita Santua'ren Ordeleriak, bere asafea agertu dautse Reich'ak Eleiza arazoetan artu dituan erabagi galgafiak dirala-ta. Agiri onetan berariz aitatzen da, katolikotafai elkor-legeak bete eragitea nai dabelako.

Baita «L'Osservatore Romano»'k erabagi galgafietzaz emondako agin- duen aurka idatzi daben idazlan bat, Eleiza gustietan irakufi dabe. Txine- lak berein-beregi itzaldiak epaituten yoateko asmaoa euki eban afen, ez ziran debekatzen asartu. Azkenengo igandean Goering'ek agindu dau ixileko txiñelak eleizetara yoan daitezala «nazis»tafen kaltez ezer esaten galarasteke.

Baita Munster'ko Gotzain kemen- tsuak erantzun edefa emon dautso Ro-

semerg'ek aurfeko astean katolikoan kaltez egin eban itzaldiari. Beste basatikeri batzuen artean esan eban Kuru- tza Deuna Alemania'ko bide ta Eleize- tatik bastertu bear dala.

Ofen erantzuna, Münster'en urtero egiten dan ibilideun eder bat izan da. Gure Yauna'gaz 19.000 lagun lau kilo- metroko ibilideunean batu ziran, beste edozein urtetan baño 6.000 lagun ge- yago, eta oin laureun urte anabatistak andik yaurtitzea ospatzeko «Te Deum» abestu ondoren, Galen Gotzain agur- gafiak bere-biziko itzaldi bat egin eut- sen, adirazten emonaz bere eginbeare- tatik aldentuko dabenik Yauna'ren laguntzagaz ez dagola. Lenago be Na- poleon'eri ango Gotzainak arpegi emon eutsela, eta oin irurogei urte beste bat yauregi artan espetxeratu ta erbeste- tua izan zala, eta arein antzera bera be eginbeafa beteteafan gertu egoala naigabe, yasarpn eta espetxeak igar- roteko, eta ez dagola inor atzera era- gingo dautsonik, Eleiza ta Kristo'ren eskubidean aldeiz bizia emoteko be gertu egoala. Eta uste ebala bardin egingo ebela katolikotafak. Otoi egin eta zintzo yokatzeko eskatuaz amaitu eban. Nazistok azur gogofa aurkituko dabe Eleizan!...

**Strasburg'eko Eukaristi-Patzafaren gafantzia.**

Pantzetafak Strasburg'en ospatu da- ben Eukaristi-Batzar onek gafantzi andia izan dau, bai bildu diran gizoste andiak dirala, baita naspil une onetan gogo-indafak alkartzea bake-biderik onena dalako, Swartz, Strasburg'eko rabinoak, Batzafari zuzendu dautson idazkian diñon lez, oso abegi onez ikusten dabela esan ondoren. Itzaldien artean, Gillet aba domekatafen buru danak egin ebana oso gafantzisua izan zan, gizartekide ta eleiztafentzat Eukaristia bake-itufia dala azalduaz. Azken-egunean, Maglione Paris'ko Ordeleri agurgafiak yaupa abestu eban 100.000 lagunuen aufean. Azkenean Aita Santua'k bere onespena «ra- dioz» bialdu eutsen. Aufetik itz batzuk zuzendu eutsezan. An ziran erkiko agintariak be.

Batzar onetan gauzarik begikoena, Parantze'ko umeak egin daben eskin- tza izan da. Aita Santua'ri euren es- kintza egin dautse, ufutidazkin edo telegrama bat bialduta. Bertan Euka- risti-Batzar au gertatzeko ilabete aufe- tik egindako otoi eta eskintzen bafi emon dautsoe. Mesatarako gari-zofo piñoez gañera, ara umeak egin ditue- zan Yaunartze, otoi eta eskintzak: Otoitzak, 34.512.946; Yaunartzeak, 1.418.527; neke-eskintzak, 12.171.389. Eskintza au abegi onez artzeko eska- tuaz, Aita Santua'ri bere onespen aita- koña eskatu dautse. Ez da aritzekoa umeak ainbeste otoi egin ezkeru, Ba- tzaña zoragarria izateal... Batzar one- tan 3 kardenal eta 32 Gotzain bildu ziran.

**Angers'ko Gizarte-Astea.**

27 urte dira pantzetafak Gizarte- -Asteok egiteko asmaoa artu ebela. Eta urtero ospatu ditue, gero ta andikiro- ago ta onura geyagoz. 1.500 irakasle, ikasle, yaupari, ugazaba ta langile bildu dira, danak batera gizarte-gayak adiraldi eta erabagi osasunkofak artz- eko. Aurten gaya, gaur gizartean somatzen dan gizartea bazkun-eraz eraltzeko gurari ta alegiñak adiraltze- ko izan da. Yakiña, ikaskuntza onein onafiak Aita Santuen Enziklika'k dira eta batez bere «Cuadragessimo Anno»n XI'n Pio'k gai onetzaz diñoana. Eugé- ne Duthoit, lendakariak, egin dituan lanak izugafiak izan dira bera izan da orain arte Batzar onuragiñon lendakari zufa-ta. Angers'ko Gotzainak le- nengo itzaldia egin eban. Azkenengo egunerako Verdier kardenala ta Aita Santua'ren Ordeleri Paris'en dan Maglione agurgafiak eldu ziran. Bost



**IZPARAK NAPAÑOABIZKAYA**

**Iruña.**

Bero izigafiak ari dituenal Ni be- zalako gizon menderentzat, ilgafiak. Igandero, Iruña'ko gazteketa geie- na or nonbait eta norapait goiz-goiz- zetik juaten oi da.

Dela mendietara, dela efietara; Iruña'ko kafikak ustutzen dira.

Alde giztietarik Diputazioneari galdeak ari-erauntsien kalteak ezti- zteko.

«La Voz» eta «Diario» eztabaika, Aizpun jauna Iruña'n zagolarik ez de- la Tafala'ko ondamenak ikustera ur- bildu: besteak aldiz, eken befi jakin zuela alde artako diputaduen ganik.

Iruña'ko jaun batzu Gil Robles gor- ratzen eta txalotzen, erabaki dutela- koz, Takonera delako atetzafetik asi eta Mirador delakoraño baztefak iri- -etxearen gain eman dituelakoz: zu- zenari bide ematea, ez da guti; orai artio ez dute egin.

Diote «Diario» delako egunkaria- ren zuzendariari esker ote dugun era- baki ori, badaiteke.

Gobernuak azkenean, erabaki du, nekazarien aldeko lege befia «ley agraria» Nafafa eta Eskual-efiko Di- putazioneari, Gobernuakin batio eta «Instituto de Reforma agraria» en- tzunik elkafekin antolatuko dutela.

Santiago egunean karlistek jai an- dia zuten... Eregegaiak agindu omen diezte, emendik aitzina aren jafalza- leak «tradizionalista karlistak» deitu daizten... izena tipegiez ez bide dire afankuratuako.

Lege befiaren arabera Buruilaren leenengo eguneraño, galeper eizia debekaturik: baño lege befia izenpe- tu-gabe dagolakoz, leen bezala Agofilaren leenean zilegi.

Nafafa guztian etzen berdin izan bear. Efiberan leenik; Iruña'ko inguruetan eta goiti ilabete bat be- randuago.

Nola nai den dela; galeper baten- tzat amar eiztari bedere agertzen bai dire berdin litzeke...

Ur eskasa eta... buruzagiak ezta- baika eta inor ez obendun.

Orai duela ogei edo ogeita amar urte, ura ausarki baldintzaren arabe- ra jokatzeko.

Orai, aldiz; baldintza berdinean, bi aldiz ur geiago bear, eta ezin el- du. Baño, guk berdin ordaintzen.

«Fuente del Hierro» ondoan bara- tze batetik sagafak ebasten zituzte- la, baratzen yabeak juan den ortzila- rean, bederatzil irian iru auferi bi perdigon tiro bota zitiozten eta iruak zauritu; ez andi, baño, zangoetan; ortarako tiroa geiegi omen da, diote; ala da, obe litzeke mutiko tzar orien ausardia zigortzeko, beren aiteri go- xoak eman?

Juan den astean, Ondafabi'ra joan zen aur gaxoen bigafen saldoa; leena etofi eta bigafena eraman; 124 aur juan zirenak.

Diputazioneko jaunak Ofeaga'n egon ziren, alonje jaunekin, zerta- ko ez dakigu.

Diputazioneari erabaki du, Ariz' tara ndereño sendakinak galditen duena bidezkoa dela.

Zinogotziak bi aldetara berezi di- re, zazpiek baietz, seiek ezetz.

miña lagunek aferarik edefena egin eutsen.

Ufengo zenbaki baten, Y. I., eraba- gien bafi emongo dogu. Gaurkoz bes- terik ez dogu esango Argentina, Ale- mania, Ingalanda, Belgika, Txina, Ekuador, España, Olanda, Italia, Li- tuania, Polonia ta Portugal'ko ordela- riak be izan zirala baño.

M'tar G.

**Mañari.**

**Erijotza.**

Barikuz il zan Atutxa'tar Josebe andera «Legofa»ko etxandera zafa, 80 urte zitubela. Jaunak zeruan euki begi. Sendijari atsekabian lagun ga- yakez.

**Juan-Etoñijak.**

—Ermu'ra juan ziran Afizabalaga' tar Birkide neskatila ta Gonzalez -Itufitza'tar Jakinda mutila.

—Garai'ra, Zabaleta'tar Bitor bere seme-alabakaz.

—Santurtze'tik etofi zan egun ba- tzuk igaroten Kapanaga'tar Pantzes- ka mutikua.

—Galdakano'tik, Uranga'tar Bene neskatoa.

—Otxandijo'n egun batzuk igarota, barikuz etxeratu ziran Untzalu'tar Efosale ta Bitore emakume zintzuak.

**Lugliñak.**

Garijak ebagi ta joten daragoyoe. Aurtengo garijak ederto erantzun dabe, garaun edefakaz galburu edef- ak egin dira-ta.

**Mendigoxaliak.**

Igandez agurtu genduzan emen Lafeategi'tar Joseba, Elortza'tar Ef- amon eta Epelde'tar Alberta, Elgoi- bar'ko mendigoxale efimiak.

**Urkiola'n**

Lengo igandez be Urkiola'ra lagun asko juaten ikusi gendun, Paula efo- sarijo - saltzaliak esan euskunez, an goyan jentetza andija batu zan, An- doni Deuneeen bitartez Jaungoikoari otoitz beroak egiten. Olako egune- tan, jatetxiak eta abar, txarto ez tira ibiliko. Paulajk berak be, efosarijo, kutun eta abar, gauza on askotxo saldu ei-eban. Ori ondo!

¿Zer eginen dute? Aur txipien sen- dakin gisaz egokiago zait anderañoa, gizonetako baño.

Untz landara andereñoa baldintza guztien yabe eta bestea ez.

Emakumen gizondu beafa... orai bedere onetsi bearko: makufago zait botodun izan dadin eta eman diote.

Emakumeak etzuten botorik bear, baldin ezpada, alarguna eta etxeko andere.

Etze batean boto bat aski; biak bear balire, biak batera bear litzeke- lakoz asafe biderik ez izateko.

Aizpun jauna Iruña'n dugu; Madrid' -en baño goxoago bide zaito.

Kabaleria'ko etxe zafaren lekuan, fronton befi bat egin gogo dute.

Logroño'tik Iruña'ra artilerioak eldu omen dire; angoek ez dituzte utzi nai.

Kaseda'ko komunak direla bide 29 giltzapeturik zaudenak, bere gain utzi dituzte, bere uzta berme.

Bilaba'ko lau gazte baitu zituzte- nak, abertzalen trena afikatu, zute- larik bere gain utzi dituzte inork ez duelakoz efan ikusi zituztela.

Iruña'tik bi autobusetan gazteketa saldo edefa juan zen Larun delako mendira.—Egun edefa izan zuten!

Eldu den ileko 12 gafenean Baio- na'ko «Eskualduna»ren egileak eta laguntzaleak bazkari bat izanen dute, Apezpiku jauna buru. ¡Ori bai dela eder!

Urbilen aldi artio, Jainkoak ala nai duela.

LAREKO

*Pederikoren esanak.*  
Kapana -erdiko Pederiko'k esan dausku, EKIN'en iminteko, aspaldi- txuan «efazoyekaz» prediketan da- bilela bera; ta egiz ta «efazoez» pre- diketan dabilen afen, inortxok be ez- tautsala jaramoten. Eta ori, tamal- gafijetan be tamalgafijena dala, bere esan gustiak zietz egingo ba'lira, Mañari besterik ixango litzakela-ta...  
Olanxe da ixan be; Pederikoren esanak zietz ta mietz egingo ba'lira, Mañari'k «buelta» galanta egingo leuke-ta...

*Jazorikoa.*

Bein, emeko mutiko batek, Urkiola'ko Santi -Gastelueneko Kastor, txafi eder bat lilen ikusi eban; eta mutiko arek, beste gauza askoren artian Kastor'i esan eutsan:

—¡Au da txafijen edefal Zeuk emoten izan dautsazu jaten?

Eta Kastor'ek erantzun eutsan.

—Bai, neuk emoten izan dautoa; eta ondo emon be... Baña berau be portau yatak...!

MAÑARIKO

**Eleiz - Jantzi ta Urregintza**  
**A. Rui-Wamba**  
Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke  
Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238  
**BILBAO**

**Erigoiti.**

1858  
Juan Manuel de Erezuma zan ma- yordomu. Organu bafia egiteko batu zirian efian ogeta lau mila efeal.

1859  
Pedro de Uribe zan mayordomu. Bafiro asi zan efia amafenak page- tan eta ganera emoten ebazan be- eun efeal argitarako. Landara asko sartu zan landan, Beresi-baso ta Afi- etako elelaldetik landarak ekafita.

Madritetik ekafi zituezen Jesusen eta Mariaren Biotzen estanpak. Migel de Guafotxena'k ipiñi eutsiezan mar- koak. Baita onek egin eban komul- gatorioa ta altara alboko maitxoak. Baita Frazisko efementariak egin eban lan asko elelan eta Saloban- te'n. Juan Bta. Azpitarte argiñak ipi- ñi ebazan elelaxako losak.

1860  
Mayordomu Juan Pedro de Karea- ga zan. San Antonio Padua'ko bafia ekafi eban Bilbo'n eginda, ta Gerni- ka'tik lau mutilek ekafi eban. Mile efeal kosta zan. Jose Dapanza'k pin- tetea bosteun efeal kosta zan. Aita Santuarentzat larogeta amabost efeal batu zirian.

1861  
Polikarpo de Oar Arteta zan ma- yordomu. Mercedes'era egin zan efo- gatiba bat.

1862  
Jose Maria de Madariaga zan ma- yordomu. Aurten dirutan batu zan elelaxako dirua: 3746 efeal. Obis- poari emon yakozan irurogeta bede- ratzi efeal.

**GORUNTZ - GAYAK**  
Eunak, bale-bizarak, zumitz ugaf-gaitzak  
**Zubiri'tar Bingen**  
Artekañe, 50 **BILBAO**